

# ALEX TXIKON

## NEGUAN ERE NEKAEZINA

Alex Txikon (Lemoa, 1981), euskaldunen artean pertsonaia ezaguna eta maitatua. Mendizale profesionala izateaz gain, hainbat ekintza eta proiektuetan ibili izan da: herri-kiroletan, telebistan edo zenbait fundazioentzako jardueran eta lanetan, esaterako. Ezaguna bezain maitagarria, izaera eskuzabal eta nekaezina irudikatzen du; gertutik ezagutzeko aukera izan duten guztien bihotzetan aztarna utzi ohi du.

TESTUA



Kirista Gorrazko Lortuak  
2016-2017

Bologian libentziaburu eta irakaslea. Kirol eskalazale amarratua; 25 urte baino gehiago daramatza eskalatzera. Hainbat artikulu ditu idatzirik, gehienak mendia eta eskaladaren inguruan. Egun, Pyreneetako erredakzioa kidea da.



Alex Everesteko kanpamentu nagusitik gertu. ARGANA-ATORRAKAZ

**Azken urteetan Alexen jardueran sonatuen etarikoak Everestera neguan eginiko saiakerak izan dira. Ez da edonor saiatzeko moduko erronka; saiatzeak daukan zailtasuna izugarria da**

Alexen ibilbide profesionalari buruz esan genezake: 30 espedizio baino gehiago egin ditu, zortzi egunetan bi zortzimilako egitea erdietsi zuen, Nanga Parbat (8125 m) mendia ezagunera neguko lehenengo igoera sinatu zuen, edota K2 eta Everestera neguko saiakerak egin ditu. Ezin egin dituen mendiko jarduerak guztiak aipatu, baina, esan dezakegu geldirik egotea ez duela gustuko; urteak joan eta urteak etorri, goi-mailako erronka eta proiektu ezberdinetan murgiltzen jarraitzen duela.

Azken urteetan, beste hainbat jardueraz gain, Alexen jardueran sonatuen etarikoak Everest handira neguan eginiko saiakerak izan dira. Arestian aipatu bezala, neguan badu eskarmentua, batik bat Himalaian. Oraindik ez du inork balentria hori erdietsen lortu, eta, Alexek, haren izaerari jarraituz, azken urteetan helburu hori izan du lehentasun. Ez da edonor saiatzeko moduko erronka; soilik saiatzeak daukan zailtasuna izugarria baita.

Alexen etxeko egonaldi labur bat baliatuz, harekin egon gara bere bizipen eta hausmarketei buruz hitz egiten.

**- Egun, zein jardueran, eskalada edo proiektutan zabilta murgildurik?**

Udara Italian eta Islandian pasatu dut eskalatzera. Jada, jaikingo duzuen moduan, azaroran Nepal aldera joateko asmoa dut. Han, lagun talde batekin trekking bat egingo dugu, eta



Alex Ama Dablamako ertze eskalatzan, 6300 m · ARGADOK DHEPALSHERPA

helburu nagusia SOS Himalaya-Itaki Ochoa de Olza Fundazioari laguntzea izango da; ateratako etekin guztiak fundazioarentzako izango dira.

**- Zure neguko azken espedizio edo saiakeri buruz asko hitz egin da. Azalduko zenigute laburki 3 edo 4 lerrotan han bizi izandakoa?**

Bai, esan genezake Nanga Parbateko tontorra zapaldu genuenetik zorte txarra izan dugula gure helburu nagusiekin. Beste gailur batzuk zapaltzea erdietsi dugu, Pumori eta Ama Dablam, esaterako. Esango nuke gustura gaudela egindako lanarekin, asebeteta eta motibatunarekin. Jarduera mota hauek asko gustatzen zaizkigu: mendian bakarrik egoteaz gain, naturarekiko harremana askoz ere gertuagokoa da. Zortzimilako mendietan, egun, denboraldia hasten denean sortzen den iskanbila ikusi ohi dugu, eta beraz, hori izan daiteke neguan joatea erabakitzeako arrazoietako bat. Nik uste bakoitzak erabaki dezakeela mendiaz nola gozatu.

**- Baduzu epe laburrean beste espedizio edo proiektu zehatzik egiteko asmorik?**

Beti dauzkat proiektu pila bat buruan, ez bakarrik mendiko espedizioak, gizartean parte aktibo izan eta neure

alotxa jartzeko asmoz egiten ditudan beste zenbait ere bai. Nik uste, neure bizitza pertsonalaz gain, Alex Txikon izateagatik gizartearekiko zor bat dudala; buruari hainbat buelta eman ohi dizkiot kontu honekin. Zenbait leku edo gizarte-kolektiboekin egon ohi naiz lanean musu-truk, eta asko asetzen naute: esaterako, pertsona helduei edo behar gehiago dituzten kolektiboei denbora eskainiz. Bestalde, pelikula edo filmen ekoizpenak ere egiten ditugu, eta, adibidez, ekoizti berri dugu nazken pelikularenekin EKI fundazioarentzat izango dira. Beraz, gure jarduera nagusia mendiko espedizioak izan arren, lehen esan bezala, beste hainbat proiektutan ere aritzen gara.

**Neguko jarduerak asko gustatzen zaizkigu: mendian bakarrik egoteaz gain, naturarekiko harremana askoz ere gertuagokoa da**

**- Zure lanbidea izateaz gain, zer eskaintzen dizu pertsona moduan mendian jarduteak?**

Oso erantzun erraza izango litzateke bizitzeko modu bat eskaintzen didala esatea. Baina ez dut horrela erantzungo. Hasteko, gustura egon behar duzu egiten duzunarekin; sen-

titu egin behar duzu; sinetsi egiten duzun horretan. Gure erromkak ez dira ospe handiagoa izateko, azken finean, egiten ditugun jarduerak alde gogorak ere izaten dituzte; sufritzea egokitzten zaizkigun uneak. Hala ere, gustura jarduten dugu, eta, askotan, une gogorak izan arren, mendiak asko eskaintzen digula esango nuke; pertsona moduan aberastu egiten gaituela esango nuke. Esaterako, kultura ezberdinak ezagutzeko aukera ematen digu; jende ezberdina ezagutu dezakegu. Nik uste, eguneroko ohiturak alde batera utzi eta, erosotasunetik at, pertsona moduan asko janzten gaituela; nik, ikuspegi hori kontuan izanik, guztia zor diot mendian jardutsari.

### **- Zure hastapen eta jo jarduerak, anekdota edo oroitzapen bereziren bat?**

Ba... milaka kontak nitzake, gaztetakoetatik hasi eta egun arte. Nire ustez, etorkizuna eraikitzeak atzera begiratzea ezinbestekoa da; bizipenak oroitzean ikasi egiten da. Adibidez, gogoan dut, Bixkekoko aireportuan gineela, jada traste guztiak fakturaturik hotelerantz abiatu eta pioletak falta zitzaizkidala konturatu nintzenekoa. Bat-batean, kontrolerako polizia gerturatu eta etortzeko esan zigun. X izpietako kontrolerak bi pioletak ikusi ahal izan genituen: noski, pioletak bertan geratu ziren.

Nire iritziz, anekdotarik ederrenak benetan baloratzen duzun jendearekin partekatzean bizitakoak dira, te bat hartuz, esaterako. Etorkizunari buruz pentsatu ezin duen jendearekin, sutondoan partekatzen dituzun momentuak, zorritzarrez jaiotzen garen herriaidearen arabera ezin baita etorkizuna aurteikusi. Askotan, horrelako bizipenek hausnarrarazi egiten didate: egun dugun bizimoduan, askotan, zein geurekoak garen, gizaki moduan ezer handirik ez baitugu behar benetan zoriatsuak izateko. Esango nuke, zoriontasun bila, askotan okerreko bidetik jotzen dugula.

Alex Pumariko tontorrean



### **- Zein ezberdintasun nabarmendutako ze nuke orduko Alex eta oraingoaren artean? Aholkuren bat emango zenioke?**

Lehenago Alex eta oraingoa guztiz ezberdinak dira. Pertsona guztiok ditugu etapa ezberdinak gure bizimoduan. Etapa bakoitzean egin behar dena da ikasi, gozatu eta aurrera jarraitu, azkar pasatzen delako eta ez dagoelako atzera bueltarik. Aipatu nahidut nire unibertsitatea bidaitzea izan dela, horrek bizitzarekiko ikuspuntu zabala eskaintzen du.

**Esango nuke, zoriontasun bila, askotan okerreko bidetik jotzen dugula**



Alex Iñiguezaren haranean (Valle del silencio), 6050 m · ARGADIA A. TORRES

**- Zure ibilbidean ze haraipamen edo oroitza pen berezia duen gailur edo igoeraren bat? Zergatik?**

Agian jendeak uste du Nanga Parbat dela egin dudan tontorrik aipagarriena, nire kamerako garrantzitsuena bezala hartu ohi delako. Baina, egun dudan ikuspegiarekin, ez nuke esango beste gailurrekin alderatuz oroitza pen bereziagoa du danik. Orokorrean, mendiko kanpalekuetan, situera handietan bizitako momentuek ekartzen dizkidan oroitza pen berezi eta magikoak. Jendeak beti gailurra lortzen deneko momentu horiek azpimarratu ohi ditu; nik ostean kanpalekuetan bizitakoak oroitzen ditu. Esaterako,

iaz Manaslu n, egundoko elurtea egin, pala hartu eta jo eta su elurra kentzen ibili ginenekoa, han ginenok elkarren ondoan hortzak estutu eta arrastoa zabaldu nahian. Bizipen horiek, esaterako, gehiago asetzen naute. Orokorrean, esango nuke alpinismoan eta bizitzan, zenbat eta gehiago kosta helburua edo lorpena, gozamina handiagoa dela, inongo zalantzarik gabe.

**- Egun, nolako osasuna du alpinismoak Euskal Herrian?**

Nik esango nuke oso egoera onetan dagoela. Batetik harrera oso baikorra naiz; 8,5 bat emango nioke. Jende gazte



Alex pitzadura baten gainetik salto egiten - ARGAZKA: ATORBAKIZ

asko dator, tekniko kio so angiprestatuak, eta zorionez emakumezko asko ere badaude. Aurretik ibili ziren emakumeek lan handia egin zuten. Edurne Pasabanek egin zuen azken zortzimilakotik (egin genuen azken tontorra, Shisha Pagma, 2010) badinudi denbora asko igaro dela, baina, saiskera gehiago izan dira azken urteetan. Tontor gutxi erdietsi dira; gaur egun, Himalaian eginiko jarduerak oihartzun txikia dutela esango nuke, 2-3 jarduera zehatzek izan ezlik. Hala ere, zortzimilako en inguruan jarduera asko egiten dira.

Nik uste, orokorrean, Euskal Herrian oso maila polita dagoela, eskaladan esaterako, eta orokorrean mendian egiten diren jardueretan.

**- Orain urte gutxi makina bat espedizio egiten ziren; orain, aldiz, bakar batzuk. Zure ustez zergatik izan daiteke?**

Bai, esango nuke agian errele boia falta dela dirudiena, baina, ez da jendeak jarduerarik egiten ez duelaiko, agian gauzak beste era batetara egiten direlaiko baizik. Nik uste gaur egun mendia kirol moduan ulertzeko joera handiagoa dagoela. Agian, lehen, abentura kutsua zeukaten jarduerak, eta gaur egun emaitzak edo helburuen lorpena da lehentasuna. Ni ez naiz inor jarduerak baloratu eta hobesak edo okerragoak diren esateko. Joera aldaketa bat ematen ari da mendizale tasunean, ez hobesagoa ez okerragoa. Nik uste, askotan, mendizaleok egin ohi dugun sikats bat bakoitzak bizi izan duen garaia goraitzatzea dela, onena izan balitz bezala. Garai bakoitzean, baliabide eta ezagutza zehatz batzuk daude, eta bakoitzak egoera edo garaia ezberdina bizi izan du. Guztiak dituzte zaurgarri ezberdinak.

**- Zuretzako berezia den lekuren bat Euskal Herrian? Eta Euskal Herritik kanpo?**

Asko ditut, baina, ez naiz leku bakar baten zales, guztietan ibiltzea gustatzen zait. Ni bidalaria naiz, eta Alexen trenea geldineuz beteta dagoenez, asko ez errepikatzen saiatzen naiz. Leku ezberdinak ezagutzea aberatsa dela uste dut, eta Eus-

kal Herritik kanpo ere berdina esango nuke. Hala ere, esan beharra dut ni altuera handiko jardueretan hobeto moldatzen naizela, eta horietan eroso sentitzen naizela. Ondorioz, Pakistan aldera joatea asko gustatzen zait. Tamalez, neguko espedizioak laburrak egiten zaizkit.

**Ez da erraza herri-kirolak eta mendiko jarduerak uztartzea, baina, euskaldun sentitzen naizenez, herri-kirolek nortasun hori erakusteko aukera eskaintzen didate**

**- Jakina da mendiaz gain herri-kiroletan jardutea ere gustuko duzula. Nola moldatzen zara mendi jardurekin bateratzeko?**

Asko aritzen naiz, bai. Azken bi urteetan 40-50 bat erakustaldi egin ditugu. Europatik zehar ere bai, harria eta aizko-rarekin batik bat. Belaunak asko sufritzen dute, eta kirolez aldatzen dudanean (menditik herri-kirole tara) eskuak izortatu izan ohi ditut. Baina, egia esan, sekulako txispa ematen didate jarduera horiek, plazan aritzen garenean, orokorrean ahal den esfortzu handiena egiteko joera daukagu; hori ere asko gustatzen zait. Ez da erraza kirol horiek bateratzea: esaterako, herri-kiroletan kirol batzuk gehiago pisatzea eskertu egin ohi dut, indar handiagok jarduteko; bestalde, eskalatzeko, kirol horiek soberan izaten ditut, batik bat helburu oso zehatzak ditudanean. Azkenean, erdibidean ibili ohi naiz, eta horrela moldatu behar izaten dut. Aipatu nahi dut biek ala biek naturarekin ere lotzen nautela. Adibidez, egurrarekin lanean aritzean, oraindik bizirik egoten da, eta hori ulertu beharra dago egoki jarduteko, indarraz gain teknika eta taktika behar baitira. Naturaren ezagutza hori mendian ere ezinbestekoa da helburuak bete ahal izateko, norberak gozatzea gain. Gainera, euskaldun sentitzen naizenez, herri-kirolek nortasun hori erakusteko aukera eskaintzen didate, eta neurre aletxo gehitzen dudala sentiarazten didate.

**- Identifikatua sentiarazten zaituen esaldi edo lema-  
ren bat?**

Ez naiz esaldi zehatz batekin identifikatua sentitzen. Zerbait esatekotan, lanarekin eta esfortzuekin esango nuke. Nire filosofia da bizitza oso azkar pasatzen dela, gaur hemen gaude baina bihar ez dakigu non edo nola egongo garen, beraz, aprobetxatu eta ahalik eta ondoen bizi behar dela iritzi dut. Bestalde, datozenei mundu hobesago bat uzten saiatu behar dugula uste dut, ea gai garen suntsitu ordez mundu hobesagoa uzteko gauzak erailkitzen.

**- Galdetu ez dizugun eta aipatu nahiko zenukeen zerbait?**

Bai, plazer bat izan dela elikamizketako galderei erantzutea, eta okerrik ez bada, haitzean eskalatzen ikusiko gara.

Alex Arna Dablamako ertzean, lehenengo eta bigarengo  
kanpamentuan artean - AIGAROA CHEPPAL SHERPA

